



## **VERTER RECYCLING-EN JAKINARAZPENA, BILAKETA-LANEN AMAIERAREN HARIRA**

*Zaldibar, 2021eko maiatzak 14.-* Joaquín Beltránen gorpua aurkitzeko lanak amaitu direla iragarri da. Horren harira, publikoki adierazi nahi dugu pena handia dugula ezin izan delako berreskuratu gorpua, eta enpresako kide guztiak lur jota gaudela Alberto eta Joaquín lankideen heriotzarengatik.

Ezin dugu imajinatu ere egin senide eta lagunen atsekabea. Badakigu ez dela kontsolamendurik izango haientzat, baina gure esku dagoen guztia egingo dugu une zail hauetan laguntzeko.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiegu hilabete hauetan zeregin zail horretan lanean aritu direnei; ahaleginak eta bi egin dituzte, baina azken emaitza ez da nahi zena izan.

Gure aldetik, lankidetzan jarraituko dugu Jaurlaritzarekin lurzorua egonkortzeko lanetan eta zabortegea zergatik erori zen jakiteko ikerketan.

Verter Recycling enpresaren onlineko oharra: [www.verter.eus](http://www.verter.eus)

*Informazioa: Arturo Zubiaga*

*Tel.: 94 415 86 42*